

ZAKALAR

-0-0-0-0-0-0-0-

Mintzin-, azken solas
eta hiru zathitako
gerthakari bat

-1939-.

GANICH IRATZEDER^rrek
egin a

Eskualzaleen Biltzarrak saristatua

(Etchepare mirikuaren saria)

Ez da herrian nihor izanen herake
Badakizun manatzen gora dudatzeko.
Mendietan lanjera, sumatu orduko,
Zuk ditutzu jendeak begiratu behar.
Guarda bat agertu da hiltzaile bezin tzar
Gero ta ozarrago da; froga azkarrak
Baditutzu : begira zure herritarra.

Piarres

Hail ba eta ikuaz zak mendirat badoan
Sarri eta norekin. Auzana ondoan
Ez ager soberarik, deusetaz ez diten
Chart; beha lagunek ere zerdioten.
Harzkik abiadurak gateko mendirat.
Azken manuak gero omanen dauzkiat
Arratsaldean.....

II

Piarres-Ganich-Gachucha-Haurrak

Mayi kanpotik

Ama !

Gachucha kanpotik

Haurrak mugi zaizte.

Piarres (biak chutitzen dire)

Erran bezala beraz, Ganich.

Ganich

Serri arte

Gachucha

Mayiri Eskaleretarik agertzen dire
Ganichi Iruli hemen dugu eta.

Ganich

Agur etchekandre, bai, goizetik bisita
Egun.

Gachucha

Goizegi, Ganich, ona izateko

Piarres

Alo !

Gachucha

Zoazte bahatche, haurrak, tenoreko
Harako zaizte berdin, besarkatzen ditu
Atheratzen direlarik. Pellori Altcha galterdia

III

Piarres-Gachucha-Ganich

Piarres ardi irriz

Hau ! etchekandre baten ongi ethorria !

Gachucha

Hau ! zinez aita baten amodio hotza !

Ganich aharrak urrundu nahiz

Orai nindagon eta... zer haur pare gaitza
Duzuen ba haatik

Gachucha

Bai, Ganich, badauzkah
Ere nago chartzen den, hain duzu bakan
Etchean bai eta hor denean : achtian
Ikhusi duzu : hitzik ez... Alo ! agian
Ez daukula makurrik ekarriko atzo
Izan bisitak !

Ganich

Hilak ez dirade mintzo !
Ez izan grifiarikan; sarri arte beraz.

Piarres

Bai sarri arte eta... hik ez ager-araz
Zer egin gogo dgun sobera hor gaindi

Ganich

Ez, ez, badut bertzerik egiteko, adi !

IV

Piarres- Gachucha

Gachucha bere buruari

Hilak ez mintzo ! bainan...

Piarres

Zer duzu Gachucha ?

Gachucha

Zer egin gogo duzu oraino ?

Piarres

Ez kecha
Aski handia naiz zer egin behar dutan
Jakiteko, ez has ba erasi beretan
Othoi ! othoi ! bakea.

Gachucha

Bainan erhokeriz
Erhokeri bazoazte.

Piarres

Inposilez irriz
Ari zare, Gachucha

Gachucha

Irriz ? zu bezenbat !
Eginen diozue zuek tzarkeri bat,
Segur naiz

Piarres

Oi ! bakea !

Gachucha

Ez othe duzun hil
Gbgo ere ez dakit.

Piarres

Azkenean ichil !
Deusik eginen dugun ba ethe dakizu ?

Gachucha

Zurekin mintzatzea ez othe zait haizu ?
Ganich hunek zionaz bethi gaurgo hila
Ez bada....

Piarres samur-bere buruari

Gizon mihi luze !

Gachucha

.... badabila
Guarda horren hiltzeko manua nedatzen

Piarres

Ez, ez, aski !

Gachucha

Ai , Piarres, sobera kechatzen
Zare. Gezur balitz, ez zinteko asalda

Piarres

Bainan zuk asmatuaz kanpo deusik ezda
Horrek eta hainbertze nau erroarazten

Alo ! irriz ea ba ? ez, noraino zaituzten
Gogoeta horiek eremanen ? ea ?
Irringarria zare, Gachucha maitea.

Gachucha

Ez, oraikoan, Piarres, ez dezaket duda.
Senhar bat kontrabandicht jadanik zerbeit da
Senhar bat hiltzaile, ez, hori, ez, sekulan !
Kontrabandan gau eta egunez dabilan
Gizon batek, ez, ez, du deus onik eginen.
Ene solas guzier irriz ari zinen;
Horra zertaratua zaren orai, horra !
Gizon baten hiltzerat... ezda ba gohorra !
Zer ? Zer estakuruak Gazpar guarda horri
Oldartzeko zaizkitzu gogorat ethorri ?
Guarderi bizitza ez zaie silhegi ?
EZ othe ?.... Bai, nahi dut, atzé urrunegi
Joan da; bainan neurrian egon zaizte zuek ?
Zer dætcho, zer arrazoin dute hemengoek
Hiru haur dauzkan aita bati jazartzeko ?
Bihotz eta fedeak, Piarres, joaten zaizko
Edo ttipitzen othe kontrandichtari ?

Piarres

Gauz hoitaz zer dakizu, predikutan ari
Baratu gabe

G chucha

Zer ?

Piarres hazarre atheratzarda

To ! bakea emezu !

Gachucha

Bai, zureak aditu beharko di tutzu !

HIRUGARREN ZATHIA

Arratsaldean

I

Piarres bakarrik gero Gachucha

Piarres
Eskaleretarik hurbil

Zorioneko gaua ! Sutan dut burua.

Hameka gogoetek egun nardatua

Tirabirakatua naukate osoki.

Zer egin ? Zoin den zuzen bieea banaki !

Ni othe naiz zinez, gain hautako zañtzaille ?

Guarda horri jazarri, zer naite ? Hiltzaile,

Gaichtagin ala bertzen zaintzeko ariden

Aintzindari bat ? Orai zertau othe dauden

Estakuruak eta dretchoak chartzen

Ahal banintz doi bat....

caphurbat ichildu eta

Jes ! azkenean etzen

Batera gaizki mintzo Gachucha... Zer egin

Du bertzeri Gazparrek ?.... Deusik ez; nerekin

Eta nerekin choikdi da tzarra izatu....

Zakalar batek othe noizdanikan ditu

Bere ontasunaren begiratzekotan

Jendeak garbitzen ? ez, ez, Jauna miletan

Nahiago nituzke denak galdu.

Eta beharba paper tzar horrekin ez du

Gauz handirik egiten anal.... Hau eguna !

Eup ! Gachucha ez duzu nihun atchemana
Oraino ?

Gachucha gainestik

Bai, bai, heldu !

Piarres

Zer ari zait ba da ?

Bo ! gero eta azkenean, segur eta fida

Nuzu ez dituela frogak agertuko .

Ez daiteke atrebi, eskuarat ez zaizkib

Eta zuzenki jinak, ez lukela ere

Geilhago bizitzerik, agertzen balire

Badaki arraz ongi. Ez dute segurik

Jasanen zuzen kontra ari den guardarik :

Hemengo jenden berri, badaki Gazparrek

Nehork bezein ontsa... bai... bai Guarda tzar horrek

Odol gaichtorik egin arazi daut bethi....

Huna gakoa ! galan zen... zertako goitz
Ereman othe nuen batere ez dakit

Fia res

Esker mila

Gachucha

Gorrichko zare

Præs abian

To ! Joan zaizkit
xBRnaBururat zure erran merran tzarrak oro.
Zuk hoinbertze mintzaldi egin eta, gero
Piska bat gorritza, ez da mirakuilu.

II

Gachucha

Lehotik hurbil jarrirrik josterrarida

Ai ! gizonaren thema !... bai, ederki oihu
Egin daut.... Halarikan ere iduri zait
Gaur erran diozkadan egitoak zerbaite
Egin dieten, ez du kuchean aphaldu
Nahi; bainan jabaldu eta aithortzen du
Egintzebaz bederen

trufatuz

Zakalar handiak....

Galtchagorritegitik jin handikeriak !
Denentzat hobe laite, segue, ez balitu.
.... Handia, bai, ororen muthil... ez bagitu
Buruzagigo horrek larruturik hiltzen....
.... Gaicho haurrak !....

III

Gachucha-Ganich-Bettiri

Ganich

Hela !

Gabhucha chutitiz

Oi ! Jauna, hegiratzen
EZ bagitutzu !

Ganich

Etche huntan ez da nihor ?

Gachucha

Sar zaizte ba, Haunak, sar.

Genich

Piarres ez duzu hor ?

Bettiri

Agur, etchekandrez !

Gachucha

To I hemengo aldi

Zu ere gaur, Bettiri.

Bettiri

Bai, badu aspaldi

Ez nintzela ethorri.....

Genich

Bon I nun dugu bada ?

Gachucha

Errota zaharrerat, oraintchet gana da.

G nich

Zaude, etchekandrea, gu joanen gitzaio

Gachucha

Ez, ez, haldu naiz.

IV

Genich-Bettiri

Genich

Gne bisita etzaio

Soberarik gustatu etchekandreari,
Segur eta fida naiz.

Bettiri

Ez zaiote sori

Gizonak mendiz mendi balin badoazi.

Emaztekiak dire hain bakean bizi

Etshe chokoan, nun maiz bainago lanjeren

Aiphatzean berean izitzen ez diren.

Ganich

Oñai koan ez dugu lanjer manjer ainitz
Izanen mendi hoitan.

Bettiri

Bai, erradak borritz !
Gaarda gaichto horrenak eginak dirade
Harritzen nuk halere hiltze horren alde
Zakalar hain errechki jarririk.

Ganich

Errechki,
Errechki, bai, emagun, Bettiri...; balaki
Bazterretan ikhasi dutana, akula
Eta hortarat zinki susta gintzazkela
Segur nauk segur; gure lagunak ha n dire
Ohointza zikhin hori jakinez hasarre !
Eta zuzentze horrek guziak hain ditu
Bozkarioz bethe

Bettiri

Bai, mendia gabbitu
Behar zen izurrito hiltzaile hartarik

Ganich

Hainbertze errechtasun gaur ditugularik
Bekatu bat liteke ez baliatzen

Bettiri

Sinhesten haut : bekatu handi bat

Ganich

Bertzea
Baigorriko Eskualdun hora izanen duk

Bettiri

Ai, ez dezake beraz Gazparrek iharduk
Alde jarriko zaiku.....

Ganich

Alde ! eta nola !
Gazparzen espantuez aseak direla
Diole guardek berek, holako gaichtagin
Nihun ezin egon bat ikhustearekin
Aintzindariek alfer huts hutsak dauzkate
Bertze guardak.

Bettiri

Bistan duk !

Ganich

Jada badituzte
Herrakor egkas horren gatik zenbeit makur
Jasanik; ase dira ore, ase/

Bettiri

Segur

Ganich

Eta zer ? Kazkoin horri plazer egiteko
Lagunak lapurtzerat leihaturen zaizko ?
Ez, segur, guarda onak ez ditzte etuai
Kontrabandichtek : gaurkotz ganden beraz lasai.

Bettiri

Espantu handienek egin ditu bethi
Gazpar guardak

Ganich

Hil eta, bai, espantu guti

Bettiri

Hori da !

Ganich

Intzolako erreka gainerat.
Doazinaz gainoan, gauaz ichtripu bat
Menturaz, han gertatzen balin bade ere
Errak, nungo jendeak harrituko dire ?

Bettiri

Oraikoan, Gazpartto, ez duk eskapurik.

V

Zakalar-Ganich-Bettiri

Bettiri-G nich

Agur !

Piarres

Agur. Hitzik erran gabe mahainaren ezker alderat doa

Ganich

Bere buruari. Zer duba ?

Pierres - Bettiri

Errak, tzarkeririk

Gazparrek nehoiz egin othe dauk, Bettiri ?

Bettiri

Eni ? ez dakit eta.... ez.

Piarres

Ganichi. Bon eta hiri ?

Ganich

Bai, eta ez : Niri nehorri deusik ez
Bainan zuri gau huntan egin dauzkitzunez
Ez othe daut, errazu, tzarkeri bat egin ?

Piarres

Nun othe gira hemen, nahi nuke jakin,
Zakalarbordan, naski. Hemengo gauzetan
Kontrabandijcht lagunek, iduri zitzaitan,
Ez zutela sekulan deus ikhustekorik
Nahi dut, kontrabandan ari ginelarik
Gazpar guardak tzarkeri bat egin banindu
Gutarik bakotohari ziteken zabaldu
Kalte hori; orduan izanen zinuten
Zuek beharba jende kolpatuek duten
Bizi eta izaiten zaintzeko dretchoa.

Ganich

Bainan orai zer duzu, ba, Piarres gaichoa ?

Bettiri

Piarres, zertako zare hain garrazki mintzo ?

Piarres

Zer ? Guarda bat hil gauaz etche huntan atzo
Sartu delakotz ? Ez, ez naiz burutik mainku.

Ganich

Zer nahi duzu, guri kalte gaitz bat zaiku
Gure jaun buruarru egin den kaltea.

Bettiri

Bai, hala da.

Piarres

Eder de leihal izatea
Eder adichkideri funtski atchikia
Izatea, denetan hekien ongia
Bilatuz, bi bieri eskerrak bihotzez
Dauzkitzuetet, bainan nere izaiteez
Ez zazuzla izan grifiarik, badakit
Nere burua zaintzen; lanjerak ez zaizkit
Arrotz.

Ganich

Bai, batzakigu zure bihotzaren
Berri; Piarres, haatik zoin bitchia zaren !
Oraiko lanjer gaitza gure gatik zaitzu
Ethorri, gure gatik, bai, zer uste duzu,
Gerizatu gabe gañ utziko zaitugun !

Bettiri

Gurekin ez bazine izan, ez zitzaitzun
Gertatuko

Piarres

Neretzat ere ez othe naiz

Ari ?

Ganich

Zehorrek ezetz frogatu duzu maiz
Eta guk zu zaitugu, Piarres, buruzagi
Gaur zure ez zaintzea ez zaiku zilhegi

Bettiri

Kontrabandan aitzeak, nik uzte, ez zaitu
Gohorki aberasten, hobeki hanpatu
Ere zinekin ari direnen moltz sak....

Piarres

Oi !

Zozokeri hoitarik ichil zaizte othoi !
Eta jakin zauze, ez bakinakite
Ere zakalartarrek neholaz ez dute
Nehoiz gizonik ez hil, ez hilen, dirua
Heal beldrrez, etsai bat hetaz bortitzua
Menturaz izan bada ere, ez da, segur,
Zuzen kontra izanen. Ez, nihoren bledur
Ez dire, bainan eskas ez dituzte fede
Bihotzak, hain gain hortan zuzenaren alde
Gure jaun Goikoa.

Ganich

Gu ere zu bezenbat
Osoki atchikiak gare fedeari
Bainan hain segur zare zuzen alde ari
Ez garen, guarda horen.....

Piarres

Ez othe duzue
Entzun ? Zer moduz erran behar zaizkitzue
Gauzak zuer ? miletan nahiago dut hil
Ezen ez sosen gatik gizon hilka ibil....

Bettiri

Zure haurrak.....

Piarres

Haurrak ? gau handiak baliez
Aita bezala egin lezakete. Zinez
Deshogoratu nahi gaitutzue, naski !
Frogak erakutsiko dituen, nork oaki ?

Ganich

Bertze kalterik egin dauku Gazpar guardak.
Erramunek badaki zer.....

Piarres

Ganich, erradak,
Baitezpada nahi duk Gazpar guarda hura
Garbitu. "ik duk eta egiazko herra

Ganich

Piarres...

Piarres

Badakik nihork bezein ontza, mozkor
Zen batez salhaturik bere burua, hor
Baitzen Gazpar, aditu zituela oro
Eta pulli pulliki bildu zuen...

Bettiri

Tiro

Ere usu egin du tzar horrek; zer zaitzu ?

*iarres

Guardar guri bezala ez zaiote haizu
Lanaren egitea ?

Ganich

Zer atheraldia ?

Ai ! bertze ka mintzo zen, Zakhalar handia.

Zer ? Guarda hoikieri norbeiten hiltzea

Haizu, eta ez guri ihardukitza ?

Nor nahi duzu dadin hil : hora ala ni ?

Piarrez

Holakorik sekulan ez duk entzun eni
Erraiten. Ez guardak, ez gu, ez dut enhesten
Batzu bertzen hiltzerat nehoiz berma giten
Gazpar bazegi dela ez dozaket uka
Huts egin badu ere, ez zuen tiroka
Ari behar : herritik joaterat bortchatzen
Ahal dugu, bainan hil, ez..

Ganich

Haatik etzen

Iziturik gan zure mehatchuen gatik.
Herra bihotzean hor da gure ondotik
Errabia gorrian oraino ibilki.
Zure mehatchu hoiek ez dute, ez unkii,
Ez unkutuko : behar dugu hola utzi
Eta oro hiltzeko lanjeretan bizi
Edo gure biharko hiltzaile tzar hori
Hil.

Piarres.

Sinhets nezak, chaiz zuzen alde ari
Guk ez dugu guarda bat hola hiltzen ahal
Geroaren beldurrez.

Ganich

Zakalar bat leihal

Eta beldurrik gabe zela uste nuen

Bettiri

Gaur goizean hiltzeko gogoa zinuen...

Ganich Bettiri'ri

Gerostik omazteak ttuttularazi du
Osoki.

Piarres hasarre

Ganich, chaiz oraino ichildu ?
Ausarta ez bertzea; gauz hoitaz zer dakik ?
Azken manuen bila jina haiz : to harzkik :
Ez jean egun mendirat.

Ganich

Bai, joan behar dugu.
Herritarren zaintzerat, ez zare heldu ? Gu
Joanen gare beldurrik gabe

Piarres

Zoazte ! zoazte !
Nik nahi gabe : nere pekoek ez dute
Hiltzaile izen bainan kontrabandicht... Aitu ?

Bettiri

Hiltze hortarat, Piarres, nork berotu gaitu ?

Piarres

Zoazte !

Ganich Bettiri'ri

Haugi !

Piarres

Zoazkite ! bainan ni hil gabe
Ez zarezte izanen Gazpar horrén jabe.

AZKEN SOLAS

Biharramunean....

I

Gachucha-Pettan

Gachucha

Zoazi ba othoi ! Pettan, ez qezaket iraun.
Beha zazu hor gaindi nihor ez den ezaun.
Ezta dudarik grifiaz ilharaziko nau.
Nork daki zer gertatu zaion.

Pettan

Bo ! aldi hau

Andre, ez da lehena. Ikhüsiko duzu
Goiz huntan listo listo ethorriko zaitzu.
Kochatzeak begi beltz, andre; mendi alde
Doan aldi guzitan, ikharetan zaude
Hameka lanjer eta ichtripu asmatzen.
Ez, zare usatua, oraino ?

Gachucha

Ez nintzen

Hain kechu, ez, lehengo aldieta : atzo
Hemen entzun bazine. Jauna ! etzen mintzo
Sekulako oihuak egiten zituen.
Mendialde joatetik ere nahi nuen
Baztertu. Oro alfer ! Errabian gan zait,
Zoazi ba, Pettan, zinez, beldur nuzu zerbait
Gerthaturik.

Pettan

Bo !

Gachucha

Zare hola ? Bainan joan orde zer ari

Pettan

Egia errateko hari
ikhusi dut aichtian, andre, eta.....

Gachucha

Eta ?

Pettan

Tiroak entzun diren istiche du.

Gachucha

Zer ?

Pettan

Ezta

Batere segur zeren....

Gachucha

Ez dezaket duda

Hek ez badire aitu, gauaz nor aitu da
Tiroka ?

Pettan

Ez dakizu ba kalaka franfo
Derabilala Marik; hola daki hango
Berri bet harek.

Gachucha

Mari gezurka ez da maiz
Ari, harek dionaz gainean, segur naiz
Zerbeitz gertatu dela.... Nun behar ibili !

Pettan bere buruari-leihoko alde

Bo ! ichildu banintz ! Bo !
Leihotik beha. To ! Ganich Iruli !

Gachucha

armario izkinetik beha

Bakarrik ?

Pettan

Naski....., bai , bai.....

Gachucha

armarioaren Kontra-burua eskuetan, auhenka
Alargun ! Alargun !

Pettan

Ai ! urde kontrabanda !

Gachucha

Oi !..

II

Gachucha-P ettan-Ganich

Ganich

Jainkoak egun

On !

Gachucha

Zer gertatu zaion, ereguzu, laster.

Ganich

Deusik ez !

Gachucha

Mala balitz ez zinteka ager
Bakarrik eta bizai zurpail hits horrekin...

Ganich

Zer dire kalapita hoik ?

Gachucha

Nahi dut jakin :

Piarres, nun da ?

Ganich

Heldu da, eiherratik hurbil
Izan behar du orai.

Gachucha

Zer ? Bizi da ? Ibil
Daite ala bertzeek dute.....

Ganich

Segur, bizi

Dela

Gachucha

Bizi ? Oi Jauna !

III

Ganich-Pettan

Ganich

Zerk zinhetsarazi

Dio hil zela ?

Pettan

Guardak gau huntan bireka
Aitu zirela zion aichtian kalaka
Frango dabiltzan Mari Larregainekoak.

Ganich

Bazinakiten beraz !

Pettan

Zer ? guarden tiroak
dituzte aditu ?

Ganich

Bai.

Pettan

Aspaldi nindagon

Mendian ictripu bat noiz jinen zitzaion;
Horra beraz.

Ganich

Gau huntan ikhusi bazinu
Zer egin duen. Nahi ginen haren manu
Guzien gatik ere behingotz jazarri
Tzarkeriaz hain omen handiko Gazparri.
Intzolako aldean erran tenoreko
Hantchet ginen guziak, bide bazterreko
Sasietan gorderik, begira egoki.
Zeruan ilhargia lo zagon gochoki
Hedoietarik harat, arrunt gelditua
Zaikun uria, aize oldarren sistua
Bezik etzen entzuten. Han ginen bi oren
Hartan hoztuak.... horra nun agertzen diren
Baigorriar handia eta Gazpar. Sistu
Egiten dut, bidean arras guitaratu
Direneko; eginen dugu jauzi, Gazpar
Tanpez inguratzeko... Bet betan Zakalar
Chimichtan iragaiten da irrintzinaka,
Oihuka, Gazpar deituz eta zirurika
Guarda hori ondotik badoa aintzinat
Olhunbetan itzaliz. Chuchen gure ganat
Sarean erortzerat zoan guarda hori
Nola airatu zaikun ! Ez den harrigarri

Pettan

Aspaldi nion : guro Piarres, zer gizonal!
NBainan aiphatu tiro hori zer zen ? Jauna
Zer egin othe zaiku ? Errazu laster.

Ganich

Ai !

Hitz dauiet bertze lanik baginuen orai.
Ohartu gareneko bagoazkiote
Ondotik. Aski laster achemanen othe
Dugu guarda gaichtagin tzar hori ? ondikotz !
Tiro bat entzun dugu eta jin ordukotz
Lohipean etzana ez dugu aurkitu
Gorphutz luze hatshantu eta odolztatu
Bat baizik....

Pettan

Guizo Piarres !

Ganich

Oi, ene bihotza
Zoin erdiratu zaitan ! Gure Piarres gaitza
Hor lurrean zaurtua ede ere hila
Ezautu autanean. Zoratu bezala
Egon naiz istan batez. Zoin nintzen ahalke !
Hiltze horren hobendun nor othe liteke
Ni salbu ? Aize sistu suhen luze hetan,
Gau beltzean, isoki iduri zitzaitan
Hil zela bethikotz hil ! Ai zer bihotzmina !
Buruz behera, hatsa herioak joana
Othe zion nindagon....

Pettan

Eta ?

Ganich

Eta hasi
Zaizkonean auhentto batzu joaten, jautsi
Zait halako gocho bat bihotzerat

Pettan

Ainitz

Kolpatu zuen ?

Ganich

Deusik gerthatu ez balitz
Bezalatsu lasterako chutik eman zaiku
Eta orai heldu da etche alde mainku
Aire batekin eta besoa zaurtua.

Pettan

Gaizoa ! eta guarda ?

Ganich

Bai, eskapatua
Den eko orhoitzen haiz, hi ere. Jokoa
Egin eta lasterka gure, puttikoa
Chesari eman da, heldu gitzaizkola
Chartuz lazturik; ez baikinion hola
Barkatuko. Bai eta gero gogoratu
Zaikunean urrun zen eta... hortaratu
Bazen ere ez othe zen horren bizia
Begiratzeko ogin Zakalar.

Pettan

Egia !

IV

Zakalar-Gachucha-Genich-Bettiri-Pettan

Bettiri

Mirikuaren bila igorridu, Joanes.

Piarres

Ez zuen balio

Gachucha

Ba, ba, hobe da, Piarres,
Zer gertha ere.

Pettan

Huna, huna, hemen, guarden
Zaintzalea.

Gachucha

Nork daki zer ikhusiko den
Oraino hunekin

Piarres

Ai !... Zer eginen nuen
Ba, Pettan ? Deus lanjerik Gazparrek ez zuen
Izanen, nihaur hiltze horren alde jarri
Ez banintz. Bai eta ez zitzaiola horri
Oldartu behar funaki ochartzean, egin.
Ahalak egin behar nituen ez dadin.
Hil, atzo hiltze hori onhartu nuenaz
Geroz.

Gachucha

Etzinezaken deusik egin hortaz
Kanpo ? Ez zinituen behar zen bidetik
Zerbeit gisaz baztertzen ahal ?

Piarres

Bai, ondotik
Aise mintzo zare zu. Jadanik berandu
Nuen eta zertarik bazter beharko du
Jakin baztertu nahi duenak. Jarraiki
Nitzaioite hargatik emeki emeki
Saisiz sasi, nunbeitik usaiako sistu
Mina entzun artean. Orduan agertu
Naiz dakizuenaren gerthatzeko.

Gachucha

Piarres,
Eta hil bazine ? bai holakotan errech
Baita hiltzea gero.

Piarres

Ezinbidetik deusik, ez hiltzeak ere
Sibelarazi behar.

Ganich

Sinhetsi bazintut !

Piarres

Ba ! zuen arrazoinak konprenitzen ditut
Pasatuak pasatu. Bertzaldian zapha
Khar soberakin hori.

Gachucha

Ez dezagun alpha
Gaihago, gerthatu gauz dohakabe hori.

Ganich

Ondikotz !

Piarres

Errak, Ganich, bildu d'tan zauri
Hunek erranen daitak geroan zer egin.
Gu Kontrabandichtak ez baikare gaichtagin.

V

Lehengoak-Jaun mirikua

Jaun mirikua

Zer da hau ? mintzo zaiku gure hil hurrena ?

Gachucha eta....

Jaun mirikua !

Jaun mirikua

Konpañiarekin Egun on; etcheko jauna,

Guziak

Mirikua. Ba ta zuri ere, jaun

Jaun mirikua

Kalaka horri ez da ezaun
Bethi deusik baduen.

Piarres

Piarres

Ez dakit zertako
Deitu zaituzten ez dut eta hanbateko
Zeuririk.

Jaun mirikua

Ez zautuztet aditzen ahal nik
Zek, hil eta baizik ez duzue minik
Laborarieki. Zure bisaiak bertzerik
Dio. Eta, errazu, heldu mintzelarik,
Letra batekin harro harro ez dakizu
Nor jin zaitan ?

Piarres

Ez, jauna

Jun mirikua

Noizdanik ditutzu
Guardak hain adichkide errazu ?

Piarres

Zer, Gazpar ?

Jun mirikua

Hura bera

Piarres

Gizona !

Jaun mirikua

Bai eta joan behar
Zuela baitezpada hemendik, ez othe
Nuen laguntzen ahal. On egin diote
Imposilez norbeiten mahatohuek eta.

Piarres

Ez, ez, zauritto hunek... Baitaki zer artha
Duten hemengo jendek guarda hitzailoez

Jaun mirikua

Bai, baningon zerbeit holako ez zenez
Gerthatu : Hatsantua; ikhare daldaran
Ari zen, hanbat nun ez baitzezaken erran
Gogoan zuena.

Ganich

Hau eguna !

Piarres

Ikhusi

Duk, gizon zuzena tzarrari naguzi
Bilakatzen zaiola goiz edo berant. Zer
Nahi makur ekarri behar zaukun dener
Zuen jazartze horrek eta sakulako
Hiltze horren odokak zuen hartchatuko
Gure gogoa. Ez dut, segur, zauri hunen
Damurik, huni esker guziak ogopen
B ikare bethi garbi. Eskerrak Jaunari !

Jaun mirikua

Ea, orai, holako den phereka hori ?
Zauri hutarik aise sendatuko zaitut.
Kontrabandako gaitza aldiz, andre, eztut
Sendatzen shal.

Piarres

A ! A !

Jaun mirikua

Bainan zahartzean
Prestutuko da nahi al'ez

Gachucha

Anartean ! ?....

"Airea zahar eta
kantorea berri"

Zenbat gazte, arin arin, mendiz mendi ibilirik
Diren nunbeit gau batez hil, tiro batek odolzturik !
Zenbat gazte urrunerat diren arrai abiatu !....
Eskualdunen balentriak nork erranen othe ditu ?

Zuen hautsak noren kharrak ditu noizbeit berpiztuko ?
Eskualdunen ~~baixenkrakxxaxxx~~ ttipitzetik noiz girade geldituko ?
Dugun gorets gure Eskual izaitea, gure gazten
Bihotz hutsak Aiten fede eta lurrez bethe diten
Gizon eskas, mutchurdinez kanpo orai Eskualdunik
EZ othe da ? Bertze asko esagutzen baititu ~~tu~~ nik,
Pausatzean, egin nuen gertakari lapurtar hau.
Haur lan bat da. Bainan ohede handi batek sustatu nau
Nere lanak eta oro ordainduak zaizkit jada
Bihotzeko nere deia nunbeit artzen balin bada :
"Eskuararen zain ~~biz~~ak, ja baitire histen ari,
"EZ ditzagun jos hil mender, jos ditzagun Geroari"

Ager-Tokia

! sukalde bat

1^o- Aintzineko paretan

- a) Eeditzutan : supazterra bere edergailu gusiekin
- b) Eskuin : ezkaratzerako athea
- c) Ezker : suila-toki bat ede mahaintto bat

2^o- Ezkerreko paretan

eskalerak

3^o- Eskuineko paretan

- a) athe ondoan : armario bat
- b) leihoa bat

4^o- Erdian : mahaina

Piarres ZAKALAR

Zakalarbordako nausia- Kontrabandicht Aintsindari-
Hogoi ta hamar bat urthe

CACHUCHA

Piarresen andrea

GASPAR

Guarda-kaskoin aire bat-sudurpekoak

PETTAN

Etcheko muthil zaharra

GANICH IRULI eta BETTIRI

Piarresen lagunak

PELLO - MAYI

hamar, sortzi urthe-etcheko some alabak

JAUN MIRKKUA

Berbogoi ta hamar bat urthe-sano sanoa
Herriko auzapeza.

(Zakalar'en partez eman ditake Azkalar
Baita omen nunbeit etche bat
izenaduena : Zak lar)

AINTZIN-SOLAS

Besperan.....

I

Gachucha- Haurrak

Gachucha

c Hots ! haub maiteak zoazte prestukh ohera
Gaургоiti Donibanen hamarrak jo dira.
Ez dezabala entzun gain hortan oihurik

Ez zozula Mayiri egin tzarkeririk
Aitu ?

Pello
Mayik egin daut....

Gachucha

Ichil eta lokar
Goizik iratzarriko baitzaituztet bihar
Aitarentzat othoitz bat egin lokartzeen

Pello-Mayi

Gau on, amatto !

Gachucha

Gau on ! bai, haurrak, agian

II

Gachucha (bakarrak)

Gaicho haurrak ! zer grifa dutan balakito.
Gaur ere kanpoan da nork daki noiz arto.

KNI ! gizonek, gizonek kaskean dutena
Kaske gogor hortarik kontzeke zer lana !

Gachucha-Pettan

Gachucha

A ! zu zinen hor, Pettan

Pettan

ba, ba, ni naiz, andre

Gachucha

Betroin churi gauria deitzi duzu ere ?

Pettan

Ba, ba

Gachucha

Môkor aldian zaitugua egun ?

Erradazu ba, Pettan, orduan zerduzun.

Pettan

Te ! gure nausiaren harat hunatekin
Etche huntan deus deusik ez diteke egin
Kontrabanda tzar hori....

Gachucha

Ai ! errazu benritz !

Pettan

Landetako lanentzat bederen hor balitz !
Jorratzekoak dire oraino arthoak.

Gachucha

Ai ! etchalderat balu laguntzen gogoak !

Pettan

Zinez, ahalgegarri baita azkenean;
Hemen den funtsarekin gure etchalean
Laster ez dugu larre baizik ikusiko.
Gure lur guzietas ari dire asko
Triflatzon... Haron aita zemaren donboran,
Gure Zakalarborda ez dezaket erran
Zoin ikustekoa son : landa oderrenak
Harek zituen eta

Gachucha

Oi, zer ospautuak !

Irriz ari girade Pettan, bainan gutik
Jasan lezakete gau guzian etchetik
Kanpo beren senharra hola ilustea,
Piarresek shulchko du bere emaztea.

Pettan

Ba, zuk egin ahalak egiten ditutzu

Gachucha

Ez dakit, ez da ezaun bethi.

Pettan

Zer nahuzu,
Andre ! Odolean du hori.

Cachucha

Odolean

Bai !... *eskoan; ez othe liteke etchean
Egon, nik haimbertzetan othoiztu ondoan ?
Odolean !.... Zertako mendiraino doan
Nago, baluke hemen odol bero horren
Enplegua, bai segur, gure eta haurren
Izaiten chahutzerat joan gabe.

Pettan/

Bai, hori
Segur, bai; bainan sinhets arez zozu hari.
EZ baita berdin ANDRE enech andre.

IV

Zakalar-Gachucha-Pettan

Pettan

té, horra nun dagon
Nagusia.

Piarres

Jaun Goikoak dautzuela gau on !

Gachucha-Pettan

Bai eta zuri ere

Piarres

Norat zoazi hola
Pettan, ilhun ilhunik ?

Pettan

Te ! goizaren bila....

Piarres

E ! etzaitela leher

V

Zakalar-Gachucha

Piarres

Gachucha, badoa ?

Gachucha

Bai, bai.

Piarres

Zoin gocho zaitan gaur etche chokoa !
Arras bustia nuzu eta akitua
Bai, gaitza izan baita egungo agudua.

Gachucha

Palto busti hotz hori ken zazu kuchean.
Oraiko atchikazu shahar heu soinean
Bainan.... ez duzu nihun minhartu mendian ?
Ez eta minik egin guarderi, agian ?

Piarres

Lester ibili gare bainan minik gabe;
Erreka zilosten trebe gira trebe.
Bazter hoitan guretzat ez duzu lanjerik.
Gure aztalek guardez ez dute beldurrik.
Tarteap besarkadak ez bagintu maite
Mendi biskarren gaindi joan gitezke ote ?

Gachucha

A ! Haurren izenean, Piarres, othoi kasu !
Zuez balentriekin maiz nago ni kechu.
Noiz duzu ba utziko kontrabanda tzarra
Noiz, beda, noiz, gizona, prestutuko zirat ?

Piarres

Ez naute atchemanen, oraino, Gachucha.
Ez izar begirale maitea, ez kecha.
Ez has erasiaka.... Ekar zerbeit jaki
Othoi, egin dezodan gogotik ausiki.

Gachucha

Ez naiz erinki mintzo, Piarres, arras huntan
Gaur nahi dautzut errant, gogoan zer dutan.

-10-

Piarres

Ja badazkihat oro : mendian ez ibil
Eta etche chokoan eihartu eta hil

Gachucha

▲ ! othoi, hire baitan sar hadi, gizona
Behin bederen entzan erraten dutana.

Piarres

Hots, laster egizu ba lotan ez nadin sar

Gachucha

Ehaiz donado bainan aita eta senhar.
Hortaz oehoitzen bahintz ez litezke alfer
Nere erran guziak. Pensa zure haurrer
Pensa zuri loturik den emazteari
Bihotzik baduzun ez da ere ageri
Zurekin hobeko dut, ichilyzea

Piarres

Ba, segur
Gachucha

Zerbeit gaitz gertatuko ez zaikun ni bæddur
Bainan orai zure gain uzten ditut oro
Urrikituko zare belharbada gero,
Ni lehen ez entzunik. Oherat banoa.....

Piarres

Zoin zaintsua zaren, ba, Gachucha gaichoa !
Zertako hasten zare bethi eztabadan.
Halere ibilikoz nuzu kontrabandan.
Nork nezake mendiko lasterka hetarik
Geleiaraz ? Jaunaren legeak bakarrik.
Aitek daukute eman ofizio hori
Jaun Goikoa bakarrik da nausi heieri.

Gachucha

Frantses buruzagien ebastea haizu ?

Piarres

Nori zer aiogu ba ebasten, errazu.
Eskual-Herrikoentzat ez da hor mugarik
Aduana horrek ez du deus ikustekorik.

Gachucha

Zerga guziak hola biltzen baditzte
Frances goberniea nola bizi daite ?
Ohointza bat ez deia ? Alo ! Egundaino !

Piarres

Bainan kontrabandichta hartua ez deno
Zergarik pagatu gabe ibiltzen ahal da.
Atchematen badute duen kontrabanda
Bai, orduen bakarrik amandak zor ditu
Edo presondegian beharko du sartu.

Gachucha

Agian, ez zaikula hori gertatuko !

Piarres

Iduri zitzaitan, bai, beldur zarelako,
Ari zatzaizkidala maiz eraziaka.
Kontrabandiohtak ere lanjerak badauzka
Airetan ta urean dohanak bezala.
Halere dontrabandak onik ez duela
Nork dezake ba erran. Ez ditezke bizi
Gu gabe guardattoak; alfer balagozi,
Eta noizean behin molsaño bat diru
Ekartzen dutanean.....

Gachucha

Bai horren haiduru

Aspaldi nagokizu.

Piarres

Ethorriko zaitzu
Ethorriko, Gachucha... Hemekak ditutzu

Gachucha

Bon ! eta... mahaineko puchkak choko hortan
Emazkitzu jan eta bihar ez ditzatan
Oro trastekerian atcheman... A ! Piarres
Kontrabandak etcheko jaunak maiz errumes
Eginen dituela di ote zeharrek

Piarres

Erranak, atsothitzak ditutzu horiek.

Gachucha

Zer atherako dugun hortarik ez dakit
Gau on !

Piarres

Ez etsi, gau on !

Piarres

Gauza berak dauzkit

Bethi errepikatzen abantsu hitzez hitz
 A ! Gachucha gaichoa zaintsua ez balitz
 Kalitate guziak lituzke segurki....
 Arras huntan zer zaikun gertaku balaki.
 Bai, pil pil ari baitzait oraino bihotza !....
 Egungo gana ere hain ginuen beltza !
 Hots ! abiatu ginen oithamar bat pinta
 Bakotchak bizkarrean menttan hartu eta
 Gaur uria ari zen tzir, tzir, jautsahala
 Bazter hoitan guardarik ageri ez sela
 Gure barrandarien argieri esker
 Jakinik, segur nintzen ginituen puchker
 Nihor ez zitzai kula egun oldartuko.
 Zoin bere alde beraz joan ginen janeko,
 Bertzesk nitarik ez bide ziren urrun;
 Ni errekan ibilki nintzen oraino nun....
 Bai, pil, pil, ari baitzait oraino bihotza !
 Sasipetik entzun dut tanpez dei bat latza :
 "Geldi" ! eta bi guarda atheratzen zaizkit.
 Zer egin dudan chuchen orduan ez dakit :
 Airez aire bezala naiz luzaz ibili....
 Nola ez diotan ba jo zerbeit arboli
 Edo zerbeit harri nola othe nago.
 Nere ondotik nuen gero ta geihago
 Hurbiltzen ari Gazpar guarda mehar hori.
 Hatsantua, hubbildik oihuka zen ari :
 "Hatsantua xx Geldi" ! Zakalar, geldi ! Berdin hartua haiz !"
 Patarrari behera lasterka gaki naiz.
 Behere hartan, futhho ! ibaibat eta.
 Zer egin ba ? Zer egin ? Ez dezaket hauta
 Jauzi bat egiten dut; banos aintzina.
 Gazparrek egin nahiz nik egin nuena
 Pulli pulliki gan zait pulump egitera....
 Errabiaturik da uretik athera.
 Chizparekin tiroka gibeletik hasi
 Huruski ilhunpetik ez bainau ikuusi.

Nere agorienta ongi gordeturik
 Horra beraz nun naizen orai deskantsurik.
 Deskantsurik ? Mum ! ez da, ez, fidatu behar
 Hain da tzarra, nork daki zerari den Gazpar.

LEHEN ZATHIA

Gauaz

(gauaz)

Gazpar

Ez dute etche hantan ohoinen beldurrik
Ez, eiki. Deskantsuan athetik sarturik
Oren laurden bat badu miatzen dutala.

Agorienta horren ondotik nabila
Eta ezin atcheman....

Zer othe zen hori ?

Bo ! sagu bat ziteken....

Bai, desgustagarri
Desgustagarri da, bai. Hor muen.... ondoan.....
Haren atchematerat chechen banindoan
Eta.... Bazakien ba hark nundik iragan
Ni asto bezala haren ondotik gan.
Nork erran bazela hor orai hambertze ur ?

Zer da harrabots hori ?

Zertako naiz beldur ?
Badut hor laguntto bat, zinez, guziz ona

Jendea berehala charmatzen duena

Bainan, bainan zakalar tzar horren jokoa !
Pagatuko dautazu bai noizpeit gaichoa.

Nun othe du kokatzen horrek kontrabanda
Ai, ai, Zakalar hori acheri ona da.....

Ez, segur, ez du hemen, ez, agorienta

Jes ! ethorri bezala, joan beharko duta ?

Zer kontrabandichta den Zakalar haatik !
Gaiza da gizon hori !

Ez, agorientik

Ez duzu hemen nihun

Ea palto hortan
Balia dezaketen paperik ez dutan

Gizona ! oraikoan badut zerbeit neaki

Molsaño huntan bada bethi paper aski

Ea ze dion hunek ? Aitaren potreta
Gizona ! hora ere zer kontrabandichta

Ehun liberako bat.... ez, ez naiz ohoin bat
Bota nezake berdin nere sakelarat
Nahi banu, bainan ez.

Eta hau ?.... Gizona !
Letra bat Akitzeko erosle batena

Dena-re on; bai, on dut letraño hau ere
Bai, bai....

II

Zakalar-Gazpar

(Piarres eskaleretarik emekiemeki jausten)

Gazpar Piarres

Gazpar

Zakalar !

Piarres

Zererat jin zare ?

Ez, ez Jakin behar dut zertarat jin zaren

Haizen bezalakoa ! Ehaiz mintzaturen ?

Gazpar

A, e, ez....

Piarres

Klarki mintza hadi ba gizona

Gazpar

E, e, ez uste izan zakalar choina....

Piarres

Zer haiz ba ? Sos emaile ? Alo ! zer kopeta

Gazpar

Ba... ba.... ba

Piarres

Piarres

Hago baietz ? ongi bota hunat bota !
Zeren begira hago, laster madak ba.
EZ nindukan ikuusi nahiko beharba.....

Gazpar

Ez nian uste zinez hoin ez dausa huntzen
EZ dituk segur guarda lagunak edertzen
Hoakit, ta... etzakala sahetseko hori
Har, berdin baitekit zuzenkontra ari
Haizela orai : nahi huntuen bazter hauk
Ikertu : kusiduk, nihaur ikuusi nauk.

Gazpar, erdi othey luz
Zakalar !

Zakalar

Hoakit laster chaut ere unki
Nahi, gu Eskualdunak leihalki, garbiki
Ari beikituk eta buruz buru, Gazpar
Mendi gain hoitan . Hendak erakutsi behar
Niri.nausi haizela... aski ikuusi haut

Gazpar

Bainan....

Zakalar

atchemana hiz eta iduzizant
Hobe dukala ichil ichilik joatea

Bai, bai, hail deskantsuan, ez dut nik jendea
Gibeletik kolpatzen eta hi bezemba
Zozo diren ohainer gogi kolpeno bat
EZ dezoketet ere bota....

Gazpar

Ikus arte

Piarres

Atseginekin, Jauna, ongi pauza zite !

Doakitala hire kaskoin arpegia
KDoakitala laster bichtatik, pestia !

III

ZAKALAR bakarrik

Hau gizon tipula ! Bai atchemana zen ! Zein
Gaizoa den haatik ! Gaizo Gazpar choin
Bilakaturik ere ez nauk garhaituko
Zakalarren larrua ez duk hiretako

IV

Zakalar-Pettan

Pettan
beztituz sartzen da
Jauna, zer gertatzen da ?

Piarres

A Pettan hi hintzen,
Zertako hiza egun hain goizik jeikitzen

Pettan

Bainan, Jauna, ez duzu ikhusi ? Aditu ?

Piarres

Ametsetan ari haiz ?

Pettan

Te, Jauna, barkatu
Ohoin zerbeit bazela uste nuen eta.

Piarres

Gostuan lokar hadi !

Pettan

Bainan....

Piarres

Duesik ezta

Pettan

Zu destenere huntan horrek jeikirik...
Eta bazen ba norbeit.

Piarres

Hail, hail deskantsurik.

Gachucha-Piarres-Pettan

Gachucha

Zer ziren ba oihu hek ? Zer ari zaizte hor ?

Piarres

Zoazi, cherat, zoazi, etzen hemen nehor.

Gachucha

Zer ? Zoazi etzen nehor... Nor zen ba astian ?
Kontrabandarat othe etzare abian ?

Piarres

Ez, ez, obakea !

Gachucha

Nor zen astian, errazu

Piarres

Nehor ez.

Gachucha

Egundaiño ! Nor ethorri zaitzu ?

Piarres

Zoazi oherat, othoi !

Gachucha

Zuk ez duzu entzun ?

Pettan

Ez dakit....

Gachucha

Ez dakizu ? Zer duzu ba egun ?
Entzun duzu bai al-ez ?

Pettan

Jaunak erran zautan...

Gachucha

Jaunak, bai... Entzun duzu zuk zerbeit gau huntan ?

Piarres

Oi, aski !

Gachucha

Entzun duzu ?

Pettan

Entzun dut, bai, andre.

Piarres

Goazan oherat; haurrak, atzarriko dire
Zuen komediekin

Gachucha

Zu, haurrez kechatzen ?

Lo dagozi, ez kecha. Errazu nor zen.
Nork ideki othe du armario hori ?
Nork unki othe dio zure paltoari ?....

Piarres

Paltoa ? Zer othe da ?

Gachucha

Eta hor, lurrean.

Piarres

Molisa ! mila demuntre !

Gachucha

Zer zen ba astian ?

Aithor zadazu orai

Piarres

Gaarda choin tzarra !

Gachucha

Zer diozu ?

Pettan

Guarda bat g̃in zaitzu etchera ?...

Piarres

Tipula ! ai, zoroa, hi haiz bai tipula !

Gachucha

Bainan izigarri da !

Pettan

Guarda bat min dela
Nik ez dezaket sinista !

Gachucha

Fiarres, mäntza zaite
Nor zinuen ? Zertarat ethorria othe ?

Fiarres

Gazpar zen; ez ahal daut paperik ebatsi.

Gachucha

Horra beraz zer behar ginuen ikusi
Zorioneko zure kontrabandarekin.
Atzo zer egin duzun nihork ez du jakin
Guardrek nunbeit ez othe zaituzte ikusi ?
Ez othe zare gan lasterka ihesi ?
Bai, bai, zorioneko zure kontrabanda
Aiten ofizioa, dezagun ba lauda !
Gauz horrek ondorio hoberenak ditu :
Mendian bazintutze atzo harrapatu
Galdu behar ginuen gure etchaldea
Galdu, zure gatikan, gure chorea....

Fiarres

Othoi ! Gachucha, ichil. Ez zare ohartzen
Deusik ez dautan hartu dutala bilatzen ?
Ez has ba mintzalditan. Kechu muzu eta....
Aspaldi badakizu zuk kontrabandichta
Dela bertze bat bezein choragarria.....

Gachucha

Hartua izaitea chore handia !

Fiarres

Oi, aski, aski !

Pettan

Othoi ! Ande... dere kasu

Gachucha

Zer uste duzu ba, ni ez naisela kechu ?
Bai, Fiarres, zu bezenbat bainan.....

Fiarres

Bai, bai, joan daut

Piarres (segida)

Letra bat... Ai ! debrien guarda ! ez ahal saut
Guti bozkariatu hain errechki joanik
Eta gero parerik, ez, ez, dutala nik.

Gachucha

Bainan zertako dautzu letra hori hartu ?
Hor zelarik ez zare deusetaz ohartu ?

Piarres

Ez nuen pentsatuko ere... Hura ere
Ez zen hortakotz jin, ez.

Gachucha

Noiz, ikhusi dire

Egundaino guarda hoik etchetan sartzen ? Noiz ?

Piarres

To ! aduana guzia bihar, goizean goiz,
Hunat ethorrarazi nahiz, ibili da
Bazter hauien ikhertzen, soberarik fida
Ez izanez; ez baitu bere buruhoa
Ttipitu nahi. Hura, aduana osca
Eta guziak sartzen ahal dira hemen
Mietzen ahal dute zenpiternan amen.

Pettan

Hola eskapatzerat lehen etzinuen
Utziko, ez dut uste.

Piarres

Eskuan baitzuen

Jenden prestutzekoa

Gachucha

Zer lanjera ! Jauna !

Piarres

Bo ! ez zezaken deusik egin bere tresna
Horrekin, arrunt zuzen kontra aitu baita
Gure etchean gauaz sartuz

Pettan

Zer kopeta !

Gachucha

Zer ba ? bere etchean ere ez nagusi ?

Piarres

Dona dan, futcho ! letra horrekin ihesi
joan zait

Gachucha

Goiz edo berant zerbeit makiur jinen
Zitzaikula bistan zen : goiz arrats han zinen....

Piarres bere buruarru

Zer egin

Gachucha

Gaicho haurrak ! zer eginen dute ?

Piarres

To ! guk egin duguna

Gachucha

Piarres, iahil zaite
Othoi ! Ez zadazula holakorik erran.
Aitak ez othe dautzu etchalde bat emen ?

Piarres bere buruari

Zer egin ba ? Zer egin ?

Gachucha

Mendian ez ibil
Hortan dago guzia

Piarres

Azkenean, ichil
Bai, bertze predikurik egiteko orai
Badugu nik hitz dautzut.

Pettan

Bai, bai, nausia, bai.

Piarres

Letra horrek zituen frogak hartu nauzki :
Hartarik zer eginen duen nik banaki !
Bainan nork jakinandu zer duen kaskoan ?
Ohoi tzar bat bezala etchтарat doan
Guerda hiltzaile batzi nola naite fida ?

Gachucha

Ongi zinien, Piarres : "Biba kentrabanda"

Piarres

Bai nan, Gachucha, ez da zorokerietan
Aitzeko mementoa, duri zitzaitan
Zinez, zentzu geihago zuk bazinuela
Etchekander bati doakon bezala.

Gachucha

Zer nahi duzu, Piarrez, dutan jaunarekin

Piarres

Ez duzu ba ikhusten, nihundik zer egin
Ez dakitala. Huna ! letra horri esker,
Aski tzar balin bada, orai preso bier ;
jaun horri eta niri sartzen ahal gitu;
Eta harrituko naiz harek ez baditu
Frogak goiz edo berant jujer erakusten.
Hindia gaichto hortarik zerbeit moduz giten
Gaitzik gabe athera gogoetan nago
Eta zu predikutan gero ta geihago.

Gachucha

Zer egin dezakazu ? Bainan chahu gare.

Piarres

Ez oraino, ez, errech ez izanik ere
Zerbeit eginen dugu. Ez zazula etsi
Bi adichkide behar nintazke ihusi.

Gachucha

Zer ? Nahi duzu orai kenpoan ibili ?

Piarres

Ez, ez

Pettarri larrerat zoazi sarri ?

Xkkakkaa Pettan
Bai

Piarres

Iruli

Horgaindi ihusiko duzula segur naiz

Pettan

Zurekin ez denean bai, bai, han dago maiz

Piarres

Errozu beraz lehen bai lehen jiteko

Pettan

Bai; joanen naiz eguna zabaldu orduko

Piarres

Ongi da. Nik hobe dut gaur ez agertzea

Pettan abiaturuz

Bon ! zaldi churiaren gainean jartzea
Hobe gugu naski ? Gau on

Piarres

Bai gero arte !

Gachucha

Ez aut lorik eginen, ez, nik

Piarres

lokar zite

Deskantsuan, deusik ez da Gachucha gainerat doa
Piarresek eskaberetarik, ukhamiloa erakutsiz :

A ! Gazpar, Gazpar,
Nagusitu haiz egun, bainan hordukbihar !

BIGARREN ZATHIA

Goizean

I

Piarres Ganich
Mahainaren bialdetarik jarriak

Piarres

Gan daut jaun horren letra...

Ganich

Bainan hori da tzar
Izaitea : egoitza batean gauaz ser...
Gure kontra guarda bat gisa hari balitz.
Segur nuzu hiltzaile eta ohoin sinitz
Gazpar hori bezein tzar ez direla beti.
Tzar baino tzarrago da.

Piarres

Kontrabandicht bati,
Segur hori nunbeitik oldartzen bazaio
Ai, osoki larrutu artean ez dio
Nihundik barkatuko.

Ganich

Bai, horra du horra
Tzar horrek bihotzean. Jada ainitz dira
Horren aztaparretan barna eroriak
Zer mina egin duen haren tzarkeriak.
Kadillako Erranun gaur bi ilhabete
Giltzapean Bayenan ez othe daukate,
Bere andre gaichoa etchean utzirik,
Hiru haur ttipi bere gain dituelarik.

Piarres

Guk laguntzen ditugu

Ganich

Zer erran nahi du ?
To ! Kadillakoak ez bagintu lagndu
Gosez ta zorigaitzez behar zutela hil.
Nor da, erradazu, hora bezein zirtzil ?
Bere egitekoak hark egin bazeza !
Nun othe du guziek daukaten bihotza?

Guardagoa egunik dagola deskantsu.
Bainan ez, hain herrakor eta urgulutsu
Da nun harek sekulan bakerik ez baitu
Begian duen hori ez badu larrutu.....

Piarres

Bainan atcheman gabe ez dezake larru....
Gizagaizoa ! gure larruen haiduru
Badago.....

Ganich

Bai, hori da, asmurik ez dayka.
Gau egunez badoa erreka erreka,
Bere herrak zintzurra tinkatzen di ola.
Zakhur errabiatu itsu bat bezala
Ahoa zabaltzen du azaniz orotara
Nor ausikiko duen sasistik begira

Piarres

Ez dakiat zer duen : Herra, errabia
Edo nahi dukana, bainan ausikia
Ez dik, bethi asmurik gabe. Zer kopeta !
Agorient chorta bat ez etchean eta...
Gogoratzeak berak nau erroarazten....
Papertto ez deus hori horrek atchematen !
Eskuetarat froga ederrak jin zaizko.
Moltsaren gordetzeaz nor zen orhoituko ?
Nor zen ohointza hortaz beldur izanen ? Nor ?
Eta noiz danik guardak diteske ha ethor
Etche haterat gauaz deusik erran gabe ?

Ganich

Holakoetan Gazpar trebe duzu trebe
Eta zenbeit bakartto atcheman baditu
Ez ditu lapurkeriz baizik harrapatu.
Errabia du horrek, zinez, errabia :
Aspaldi ez gintezke nihorat abia
Haguna dariola, itzalpe batean,
Hura ikuusi gabe. Ganden arratsean
Ere.....

Piarres

Errabia dik horrek; ongi dик

Ganich

Noiz arte ditugu ba, Piarres; tz-rkeri hok
Mendi hautan jasanen ? Zer egiten zaio
Zakur errabiatu bati ?

Piarres

Ez nitzaio
Holako zakur bati sekulan ohartu
Bainan... Ganich, zer erran nahi duk ?

Ganich

Baditu

Zenbeit mehatchu bakar izanak jadanik
Geroan orhoit zaite gaur zer diotan nik
Elba alferretarkk, ez bagira laster
Egintzeta rat joaten...

Piarres

Zer gertha daite ?

Ganich

Zer ?

Handizki hobendunak izanen garela
Eta ez dela segur hark atzo bezala
Hutz eginen duela bethi

Piarresek sorbaldak higitzen ditu

Berdin zaitzu ?

Emagun, Bainan zure azpiko ditutzu
Mendi bazter hautako gazte biphilenak
Eta guarda gaichtagin horren tzarkeriak
Hotarik bat kolpatzen, hiltzen badu ere
Orduan hobendunak nor izanen dire ?

Nor othe, erradazu, Piarres.

Piarres

Nik dakita ?

Ganich

Ez dakizu ? Haratik ez hunatik ezta
Nor litezken hobendun nor nahi badaki
Herrian : gu gintzuk eta bereziki :
Zu !

Piarres

Asmatzea ere bada zerbeit, alo !

Ganich

Noiz danik daukazuba, izpiritua lo ?
Bainan, ez othe zare, zu, hain erne zagon
Zakalar handiaren semea ? Ez zion
Eginbideari hain luzaz behatuko
EZ, harek : tzarkeri hok ikhasi orduko
Tipustapan heziko zuen Gazpar hori
Eta, errazu, norat joan zaitzu zohorri,
Piarres, zure kalipu sustagarri hura,
Miresten baikinuen orok zre kharra ?
Berrikitan Gazparri dagoeal prestu,
EZ diozu zehorrek othe gaztiatu ?
Eta laster joateko orai zenbeit egun
Erran diozunean, hortan zen ezagun
Bai, manu azkar hortan noren seme zaren
Kalipu bazineun orduan bederen.

Piarres

Oso daukat, hitz dauiat, oraino lehengo
Kalipu hori baifian gogoetan nago....

Ganich

Gogoetan....

Piarres

Bai, Ganich, hi aise mintzo haiz.
Hi ere duda mudan egon hinteko maiz
Zure erran guziak manuak balietz.
Gaur diokanaz nago chartzen haizenetz
Edozoin gizon bati oddartzea zer den
Eda guziz.....

Ganich

Ni nago zertako gaur zauden
Hain luzaz duda mudan, arrunt ilhaundurik
Egintzeri lotzeko eguna delarik.
Geldirik egoiteko manatu zinien :
Beha ordenu horri kasu eman dion
Errabia gorrien jin zaiku ondotik,
Gero ta ozarrago da eta geroztik,
~~X~~Atzo zure hiltzeko egin dautzu tiro;
Ikhertu gauaz zure izaiteak oro.
Ohoin, hiltzaile eta... zer egin behar du
Zertarat behar othe du, zertarat heldu,
Zakalar, bethe diten zure mehatchuak ?
Irris ari zinen ba mehatchuka ?

Piarres

Errak

Ganich, nik bezein ontsa badakik; orduan
Zafraldi edertto bat, oihanpe batean,
Eman gogo ginton eta bertzerik ez.

Ganich

Segur, bainan, erazu, hambat tzarkeriez
EZ zitzaikun jazarri hori orai arte.
Gure zafraldiak zer egin dezokete ?
Zer, gaur hortaratua delarik, tzar horri ?
Errabiaraziko dute : nor nahiri
Hasiko zaio berdin koleraz tiroka.
Zure ahuleziak ez othe diozka
Etche bati zorigaitz izigarri batzu
Emanen ? Bainan orhoit, zure gain ditutzu
Kontrabandako zerak. Zu zare, zakalar,
Mendi hautako Jauna ! Eta norbeit bihar
Erortzen bada horren aztapar luzetan
Bethikotz errekarat badeatzzi ere
Ete gtarik zenbeit, bai, hitzen badise
Zehorren falta dela jakin ere gabe